Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

276

EBAZPENA, 2009ko urriaren 26koa, Herri Administrazioko sailburuordearena, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren barruan, banda zabaleko Interneten sartzeko diru-laguntzak emateko dena.

Euskadi Informazio Gizartearen Planaren barruan, Eusko Jaurlaritzak, 2004ko maiatzaren 11n eginiko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko eremuan banda zabalerako azpiegiturak hedatzeko den Konekta Zaitez@Banda Zabala (aurrerantzean KZ@BZ) izeneko egitasmoa onartzeko Erabakia hartu zuen.

Halako telekomunikazio-azpiegiturarik ez duten Euskal Autonomia Erkidegoko lekuetan azpiegitura horiek jartzea da programaren helburua. Horrela, herritar guztiei Interneten sartzeko aukera eman nahi zaie, baita horri esker haustura digitala izenaz ezagutzen duguna kentzen lagundu ere. Halaber, Konekta Zaitez@Banda Zabala izeneko egitasmoaren helburu diren aldeen konektibitateak operadore pribatuen eskaintzaren bitartez hornituta dauden aldeetako baldintza berdintsuak izatea ahalbidetuko da.

Beharrezko azterketa teknikoak egin ondoren, egitasmoa bere osotasunean definitu eta gero –haririk gabeko teknologiazko konponbide batean oinarrituta– eta sare publikoa kudeatu behar duen operatzailea hautatu ostean, sare honen garapena hedatzeko aldian dago, Itelazpi SA (aurrerantzean Itelazpi) izeneko baltzu publikoak egikaritu eta kudeatzen duela.

Dena den, egitasmoak zailtasun garrantzitsu bat du, hala nola, kasu zehatz batzuetan erabilitako konponbide teknologikoaren arabera erabiltzaileak Interneteko zerbitzura eraginkortasunez eta benetan konektatzeko beharrezkoak diren terminal-ekipamenduen kostua eta tokian tokiko estaldurako banda zabaleraren hedapenerako berariazko proiektuak ezartzeko kostu handia. Hori dela eta ezinbestekoa da aztertu eta definitzea jarduera publiko haiek non litekeena den proiektuaren kostuaren eragina gutxitzea azken erabiltzailea izan daitekeenarentzat nahiz interesa duen udalentzat.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak, 2007ko uztailaren 10ean eginiko bileran, alor horretan jarduteko esparru orokorra onartu zuen eta finantzatzeko programa Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren bitartez gauzatu zen. Agindu hori 2007ko abuztuaren 1eko 147.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

276

RESOLUCIÓN de 26 de octubre de 2009, del Viceconsejero de Administración Pública, por la que se conceden ayudas para el acceso a internet de banda ancha en el marco del Proyecto Konekta Zaitez@Banda Ancha.

En el marco del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información, el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 11 de mayo de 2004, adoptó el Acuerdo por el que se aprobaba el proyecto Konekta Zaitez@Banda Zabala (en adelante KZ@BZ) de despliegue de infraestructuras de banda ancha en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El objetivo de dicho programa consiste en la dotación de este tipo de infraestructuras de telecomunicaciones en aquellas zonas de la Comunidad Autónoma de Euskadi carentes de ellas, haciendo posible el acceso de todos los ciudadanos a Internet, contribuyendo así a la supresión de lo que se ha dado en llamar brecha digital, y posibilitando, que la conectividad en las zonas objetivo del proyecto Konekta Zaitez@ Banda Zabala se sitúe en condiciones equiparables a las de los entornos resueltos mediante la oferta de los operadores privados.

Una vez realizados los estudios técnicos precisos, definido el proyecto en su conjunto -basado en una solución de tecnología inalámbrica- y seleccionado el operador que ha de gestionar la red pública, el desarrollo de esta red se encuentra en fase de despliegue, ejecutada y gestionada por la sociedad pública Itelazpi, S.A. (en adelante Itelazpi).

No obstante, el proyecto presenta una dificultad importante como es, dependiendo de la solución tecnológica empleada en determinados casos, el coste de los equipos terminales necesarios para la efectiva conexión de los usuarios al servicio de Internet y, en otros supuestos, el elevado coste de implantación de proyectos específicos de extensión de banda ancha con cobertura de carácter local, siendo necesario el análisis y definición de aquellas actuaciones públicas que permitan diluir el impacto del coste del proyecto tanto en el usuario potencial final, como en el Ayuntamiento o Ayuntamientos interesados.

Por todo ello, el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 10 de julio de 2007, aprobó el marco general de actuación en ese ámbito, materializando el programa de financiación a través de la Orden de 11 de julio de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, publicada en el Boletín

zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Aipaturiko aginduan diru-laguntzetako programa bat eratzen da. Diru-laguntza horien xedekoak dira, hain zuzen ere, alde batetik erostea banda zabaleko Internetekin konektatzeko erabiltzaileak behar duen terminal-ekipoa eta, bestetik, frekuentzia libreetako (wifi teknologia edo antzekoak) bandako puntu-puntu anitzeko hari gabeko teknologietan oinarritutako instalazio kolektiboak. Halaber, prozedura eta irizpideak ezartzen dira diru-laguntza horiek emateko eta ezartzen dira, orobat, laguntzen zenbatekoa eta berau aldatzeko prozedura.

Herri Administrazioko sailburuordearen 2009ko urriaren 14ko Ebazpenaren bitartez onartu da 2009ko ekitaldirako laguntzei dagokienez guztira aurreikusi den zenbatekoa. Ebazpen horretan guztira ezarri den zenbatekoa laurehun eta laurogeita hamaika mila bederatziehun eta berrogeita zortzi (491.948) eurokoa da. Erositako ekipo terminal bakoitzeko aleko zenbatekoa ezarritako konponbide teknologikoari dagokionez berrehun eta laurogeita bat (281) euro izango da.

Halaber, esandako Agindu horren 10. artikuluak Itelazpi izendatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erakunde laguntzaile bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu bategina onesteko den azaroaren 11ko 1/1997 legegintzako Dekretuaren 52. artikuluan eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta Itelazpik, 2006ko uztailaren 21ean azken honen helburu sozialaren baitan zerbitzu batzuk emateko sinatu zuten lankidetzarako hitzarmenean ezarritakoari jarraituz. Zerbitzu horien artean KZBZ egitasmoa dago eta Hitzarmen horretan egitasmoaren finantza-esparrua jasota dago.

Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz eta erakunde laguntzaileak eginiko proposamena ikusi ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Konekta Zaitez-Banda Zabala izeneko egitasmoaren esparruan Bernedoko Udala banda zabaleko Internetera sartzeko diru-laguntzen onuraduna dela. Diru kopurua guztia 8.769,70 euro da; hau da, proiektuaren kostuaren % 100.

Bigarrena.– Aipatutako 2007ko uztailaren 11ko Aginduaren 13.2 artikuluan erabakitakoari jarraituz, Itelazpi baltzu publikoak izango du ardura onuradunari laguntza jakinarazteko baita ordaintzeko ere.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aur-

Oficial del País Vasco número 147 de 1 de agosto de 2007.

En dicha Orden se articula un programa de subvenciones destinadas a la adquisición de equipos terminales de usuario e instalaciones colectivas basadas en tecnologías inalámbricas punto-multipunto en bandas de frecuencias libres (wifi o similares), para la conexión al servicio de Internet de banda ancha. Asimismo se regula el procedimiento y los criterios para el otorgamiento de esas ayudas económicas y se establece la cuantía de las ayudas y el procedimiento para su modificación.

Mediante Resolución de 14 de octubre de 2009 del Viceconsejero de Administración Pública, se aprueba el importe total de las ayudas previsto en el ejercicio 2009, estableciéndose un importe total de cuatrocientos noventa y un mil novecientos cuarenta y ocho (491.948) euros. La cuantía unitaria por cada equipo terminal adquirido en relación a la solución tecnológica general implantada será de de doscientos ochenta y un (281) euros.

Asimismo, en el artículo 10 de la referida Orden se designa a Itelazpi como entidad colaboradora de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los términos establecidos en el artículo 52 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en el Convenio de colaboración que, asimismo, suscribieron el Departamento de Hacienda y Administración Pública e Itelazpi el 21 de julio de 2006, para la prestación de diversos servicios en el marco del objeto social de esta, entre los que se encuentran el proyecto KZ@BZ, y en el que se recoge el marco financiero regulador del proyecto.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 11 de la Orden de 11 de julio de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, a la vista de la propuesta elevada por la entidad colaboradora,

RESUELVO:

Primero.– Hacer pública la concesión de las ayudas para el acceso a Internet de banda ancha, en el marco del proyecto Konekta Zaitez@Banda Zabala, al Ayuntamiento de Bernedo y en la cuantía total de 8.769,70 euros equivalente al 100% del coste del proyecto.

Segundo.– De acuerdo con lo estipulado en el artículo 13.2 de la citada Orden de 11 de julio de 2007, la sociedad pública Itelazpi será la encargada de la comunicación y del abono de la ayuda al beneficiario.

Tercero.– Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse

keztu ahal zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari hilabeteko epe barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko eta baita ere erakunde onuradun bakoitzari honako honen berri emateko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 26a.

Herri Administrazioko sailburuordea,
OBDON BILBAO CORCUERA.

recurso de alzada ante la Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, así como notificar la misma al beneficiario.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de octubre de 2009.

El Viceconsejero de Administración Pública,
OBDON BILBAO CORCUERA.